


Años LVI-LVII urteak

N.º 98-99. zk.

2024-2025



CUADERNOS de Etnología y Etnografía de Navarra

SEPARATA

Reseña.

Retratos de la memoria

Jon Mentxakatorre Odriozola

Sumario / Aurkibidea

Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra

Años LVI-LVII urteak - N.º 98-99. zk. - 2024-2025

ARTÍCULOS/ARTIKULUAK

Velas de sebo: noticias sobre la producción y provisión institucional en Pamplona Ricardo Gurbindo Gil	9
José Miguel de Barandiarán, la etnografía y la memoria temprana de la violencia franquista Fernando Mikelarena Peña	49
Las canteras moleras en Navarra. Estado de la cuestión Javier Castro Montoya, Pilar Pascual Mayoral, Pedro García Ruiz	73
Emigración navarra a Estados Unidos de América en la segunda mitad del siglo XX (segunda parte) Mikel Aramburu Zudaire, Asier Barandiaran Amarika, Jaione Inda Aldaz	121
Apuntes etnográficos sobre Sangüesa de 1961 y 1973. Entrevistas de Javier Sola Martínez a Roberto Elduayen Miranda y Andresa Goñi Martínez Roldán Jimeno Aranguren	209
Tras las ermitas desaparecidas de Ibero: reconstrucción documentada de su localización probable Francisco Idareta Goldaracena, Ainhoa Urrea Barandiaran	241

NOTICIAS/BERRIAK

Veinte años de Lera-Ikergunea (Mugarik Gabeko Antropologoak). Breve historia de una pequeña ONG de profesores universitarios en el Tercer Sector de Acción Social Kepa Fernández de Larrinoa	275
--	-----

Sumario / Aurkibidea

IN MEMORIAM

Juan Cruz Labeaga Mendiola: remembranzas de un historiador silencioso, maestro y amigo	
José Ángel Chasco Oyón	289

Fermín Leizaola Calvo, maestro de la etnografía vasca	
Maite Errarte Zurutuza, Suberri Matelo Mitxelena	301

Censo de neveros de Navarra	
Antxon Aguirre Sorondo	309

RESEÑAS / ERRESEINAK	389
-----------------------------	-----

Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales / Rules for the submission of originals	407
--	-----



Retratos de la memoria

RUBIO MARCOS, Elías

Burgosko Aldundia, 2023. 167 orrialde

ISBN: 978-84-16617-38-8

Azalaren irudia:

<https://www.burgos.es/servicios/publicaciones/retratos-de-la-memoria>

DOI: <https://doi.org/10.35462/CEEN98-99.17>

Burgos hiritik iparralderantz, Peñahorada herri txikiaren sarreran, iraganean mesoi izan zen eraikinean, Elías Rubio Marcos ikerlariak bere etxea dauka, eta han hartzen du bere lanaren gainean interesa duen edonor. 1944ko martxoaren 27an Alfoz de Larako Villaespasan (Burgos) jaioa, 30 urtetik Peñahoradan sustraitua, Rubio jaunak bizitza osoa eskaini dio bere jatorrizko lurraldea aztertzeari, eta, aipagai dugun liburu hau barne, 15 liburu idatzi ditu bakarka, 3 taldean, eta ehundaka artikulua, bai prentsan, bai aldizkari akademikoetan. Horrekin guztiarekin, Burgoseko ahozko ondarea, etnografia, artearen historia eta geografia argitara ekarri ditu.

Retratos de la memoria liburua, ordea, bere ekarpen guztien artean berezia da. Ez da ohiko lan akademikoa, eskertze liburu kuttuna baizik. Haren 167 orrialdeetan, urte askotan haren ikerketaren iturri izan direnen artean, ondarearen eta ahozko literaturaren haien jakintza zabalagatik, 25 lagunen soslaiak ematen dizkigu. Pertsona horiek haien oroimenaren altxortegia ahoz eman zioten Rubiori, eta, urtetako berbaldiekin, adiskidetasuna ere bai.

Hori dela eta, herri jakintzaren bilketari eta azterketari emandako bizitzan, ondare zabalaren jagole egiteko bidean, ekarpen handia egin edota hunkipen sendoa eragin dioten hogeita haren pertsonekin izandako bizipenak baliatu ditu autoreak, etnografia eta folklore lanetan aritzearen alde gizatsuna erakusteko asmoz. Burgosko pertsona horien azalpen biografikoaren eta lekukotasunaren berri emanik, Rubio jaunak bere ikerketa lanaren alderik humanoena eskaini digu, eta, horrekin bat, herri ondarearen tratamendurako metodologia eta balio sakonak. Izan ere, 25 lagun horietako gehienak hilda daude gaur egun.

Egileak, hortaz, barne beharizana izan du haien eskuzabaltasun, hurbiltasun eta benetakotasuna esker ditzan, eta, bildumaren bidez, haien bizitza isila oroimen zabalagoan jar dezan. Eta liburu ederra ondu du. Kalitate handiko koloretako 40 irudi eta zuri-beltzezko 25 argazki eman ditu, eta aurkeztutako pertsona ororentzat oinarritzko datuen fitxa presatu du autoreak: gizon-emakumearen izen-deiturak, herria, ogibidea, harekin izandako elkarriketen datak eta, testua lehenago argitaratu bada, erreferentzia. Horrekin batera, berriemaileengandik jasotako esaera, aho-korapilo, ipuin, abesti eta koplak ageri zaizkigu.

Bada, ordea, Rubioren bibliografia ezagutzen duenarentzat, hutsunetzat har litekeena. Hau da, aurkeztutako artzain, unai, nekazari, ikazkin, saltzaile ibiltari, irakasle, poeta

eta besteren artean, Rubioren lanetan behin baino gehiagotan agertutako hargina: Jesús Fernández Martínez, Munillakoa, 1998an Brizuelan elkarrizketatu zuenean, 93 urteko itsua zena. Harginaren seme berori, hargin ibiltaria izan zen herriz herri, eta ezohiko altxorraren jabe zen: harginen isilpeko hizkuntza, Rubiori hein batean azaldu ziona.

Burgos iparraldeko haranetan, Zamanzasen eta Valdezaman bereziki, hargintzak toki handia izan zuen, Kantabrian eta Bizkaian egiten zen harlantzaren zabalkundearen eraginez. Hala, 1991eko «Jerga de los canteros en el pueblo de Munilla» artikuluan (*Boletín de la Institución Fernán González* 218: 203-10, <https://riubu.ubu.es/handle/10259.4/2099>), gerora 2006an «La jerga de los canteros de Munilla (Burgos)» izenez emandakoan (*Culturas Populares*, 2. zenbakia, <http://www.culturaspopulares.org/textos2/articulos/rubiomarcos.htm>), hargin hark ezagutzen zuen ezkutuko hizkuntzaren berri ematen zaigu, eta euskararen ekarpena nabarmena da.

Emandako hitzen zerrendatik adibide argi batzuk ekarriko ditugu hona: *acharrigondu* (itsusi), *araguía* (haragi), *bai* (bai), *chacurra* (txakur), *chacurrón* (azeri), *chiqui* (gutxi), *erguina* (hargin), *guicoba* (Jainko), *sorchi* (zortzi), *urdalla* (tocino), *ureta* (ur), *urnia* (behi), *urriaco* (urde), *usquía* (eguzki).

Harrigarria da Rubioren bilketa ha. Harginen hizkera ezkutukoa zen, eta ogibidea eta haren mundua aspaldi igaro eta gero zabaldu zion berriemaileak. Eta hiztegi horrek erakusten dituen euskarazko formek Gaztela nafarra zen garaira eraman gaitzakete. Hau da, Burgosko etnografia lanak Nafarroakoa aberats dezake. Zientzialarien artean, euskal hizkuntzalariek horren berri izan behar dutelakoan gaude.

Rubio jaunak, beraz, badauka liburu gehiago idazteko materiala. Baina, 2024ko abuztuaren 9ko goizean, aipagai dugun liburua aitzakia zela, harekin izandako solasaldian, *Retratos de la memoria* haren lumatik irtengo den azkena datekeela adierazi zigun. Hots, gorazarre liburu honek bizitza osoko herri jakintzaren zaletasunari eta folklореarekiko ardurari epilogoia edo hitz-atzea jarri diekeela. Horrek, argi eta garbi, liburuari balio erantsia ematen dio, azken-burutzat har dezakegulako.

Baina Rubiok ikertzeari eta idazteari ez die utziko, 2009ko uztailak 8an abiatutako *Memorias de Burgos* bloga (<https://arqytrad.blogspot.com>) aberasten jarraituko baitu. Bertan ere, iraganeko Nafarroarekin zerikusia duten hamaika kontu aurki daitezke ehundaka sarreraren artean, eta, *Retratos de la memoria* liburuan bezala, giza begirada ederra topatuko du irakurleak.

Horregatik guztiagatik, Rubioren lana oroimenaren arkeologian kokatzen da. Harekin hizketan, bere burua ahanzturatik erreskatatzen duen arduraduntzat azaldu zuen, horretarako opari duen sentiberatasunari esker. Egindako lanak pertsona legez osotu egin duela adierazi zigun, eta itxaropentsu ageri da gerora begira. Iragana joan egin da, baina gudan haren oihartzunik onena bizi daiteke, azaldu zigun bezala.

Horretaz guztiaz, eta naturarekiko minak eta ipuinen lilurak ondarearen zainketaren bidea nola ireki zioten kontakizunaz, 2008ko *Culturas Populares* aldizkariko

6. zenbakian argitaratutako autobiografian aritu zen: «Una autobiografía etnográfica. Vida, aventuras y obra de un historiador de la cultura tradicional burgalesa» (<http://www.culturaspopulares.org/textos6/articulos/rubio.htm>). Bertan, urteetan jasotako lorpenez eta egindako ekarpenez gain, bere bizitzaren zentzuaz ere jardun zuen. Bereizitako bost aro nagusiak laburtuko ditugu hemen:

1. Espeleologia eta arkeologia. 1968-78 artean, leizeen azterketa zientifikoa helburu zuen Edelweiss espeleologia taldeko kide izan zen, eta, horren aurretik, 1963-68 artean, Eibarreko espeleologia elkartekoa. Sasoi hartan, hainbat etnograforekin eta natura-zalarekin ibili zen, Joxe Migel Barandiaranen jarraitzaile Fermin Leizaola eta Jose Telleriarekin, besteak beste.

Solasaldian esan zigunez, leizeez galdetzearekin batera, tokiko jendearekin haiek egiten zuten lanaz jabetzeak eragin handia izan zuen Rubiorengan. Berriemaileengana nola hurbildu, haiekin nola aritu, artea da bere horretan, eta haien mundurako sarbidea lorturik, haren sentimenaren eta adierazmenaren zaporea lortzen da.

1970etan, Edelweiss taldean, arkeologia saila zegoen, Jose Luis Uribarri zenak zuzendua. Harekin egindako aurkikuntzak irudimena trebatu zioten.

2. Kristau eremitorioak eta harkaitzetako elizak izan ziren bere ikergai 1980etan. Harekin, tradizioen eremuetara ireki zen.
3. Gaztela eta Leongo albumerako lan sasoia, 1985ez gero. Lurraldeko paisaia eta artea umeentzako kromo bilduma bidez zabaltzeko proiektua zen. Urte bi arian-arian ibili zen, eta, Unamunok amestuko zituzkeen bizipenekin, lurraldea maitatzen ikasi zuen. Rubioren autobiografiatik hartutako hitzetan:

Dormí en viejas posadas, en palacios renacentistas, al pie de castillos y ermitas, en el hotel de las estrellas; conocí casas fuertes, descubrí abadías y monasterios perdidos, en pie y arruinados, sentí el escalofrío del batir de espadas en llanuras sin fin, del románico más sombrío; me maravillé con la luminosidad de las bóvedas estrelladas y cimborrios...; me enamoré del paisaje y de los cielos castellanos, de los terrones de sangre del camino de Santiago, de sus pueblos amurallados en oteros. Sudé tinta para hilvanar, resumir en tres líneas de texto lo que en justicia debían haber sido gruesos tratados de historia y de arte.

4. Kazetaritza, industria-arkeologia eta etnografia. 1989an *Diario 16 Burgos* agerkarian lanean hasi zen, eta urteetan erreportaje ugari egin zituen. Burgosen inoiz landu gabeko gaiei bide eman zien, balneario, zinema, ola, karobi, gatzaga eta besteren gaineko lanak eginez. Hala, etnografiaren eremuan sartu zen Rubio. Sasoi hartakoak dira berriemaile batez ere zaharrekin izandako egindako solasaldi luze-sakonak, herri xehearen historia egiteko asmoz. Hemen ere bere hitzak aditu behar ditugu:

Me interesaban las historias cercanas, sacar del olvido, pese a su cercanía temporal, actividades fenecidas o a punto de fenecer. Me interesaba también involucrar,

integrar en mis historias a personas que las vivieron, pues su memoria y sus relatos podían dar una visión humana de la misma, algo para mí totalmente imprescindible e irrenunciable. De ese modo, en todos mis trabajos, hay una parte contada y otra parte de archivo. Compaginar la memoria oral y los datos documentales de archivo ha sido siempre mi forma de actuar.

5. Ahozko ondarea. Burgosko ahozko kulturaren eta tradizioaren bilketa sistematikoa. César Javier Palacios eta José Manuel Pedrosa biltzaileekin batera 10 eta haren urte ibili zen, eta hiru liburuko Tentenublo bilduma osatu zuten. Rubioren hitzetan, berriz ere:

Soy de la idea de que un cuento, un romance, o una leyenda, que han pervivido durante siglos y hasta nuestros días, transmitiéndose ininterrumpidamente en boca de los habitantes de nuestros pueblos, de generación en generación, han de tener la misma importancia que una catedral, un castillo, una ermita románica o un retablo gótico, por citar solo algunos ejemplos materiales.

Autobiografian ere, berriemaileekin izandako eragin handiko bizipenen batzuen berri ematen du. Gehienak *Retratos de la memoria* liburuan jasota daude, eta horrek, beste behin ere, liburuaren dimentsio gizagarria erakusten du. Egilearen izaera, ibilbidea eta gorazarrerako oroimen aitortua ezin dira haien artean bereizi.

Esandako guztiagatik, *Retratos de la memoria* lanak, Burgosko lurraldeaz hitz eginenez, Euskal Herriko historia-hari urrutietarako muturrak eskaintzen ditu, eta, nabarmendu dugun legez, arnas-haragizkoa den giza zientzien balio ederretara leiho da. Izan ere, lan zientifiko neutro eta objektibo asko egin ondoren, horren guztiaren biribilketa legez, Rubiok lan sentikorrena eman du, bere bizipenen bidez, irakurleak bere baitako ortzi-mugak zabal ditzan gogoz.

Egileak badu izpiritu-mina bere baitan, iraganera gaur egunera baino lotuago dakusa bere burua. Baina sentimendu hori ez da oroimin oker. Liburua ez da nostalgiaz egin-dakoa, esker anitzez eta itxaropenez baizik. Oroimen hori ezaguna izango den esperantza nabari da bertan, eta, horrekin bat, oraindik gogora ekarri ez duguna aurkitzeko hitzimatea.

Jon Mentxakatorre Odriozola